

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2016ko AZAROAREN 10ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko azaroaren 10ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


Bere ezin etorria azaltzen du: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
- **2016ko urriaren 13an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 13 de octubre de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Larraulgo Arpirene baserriko barne eraberritze obra baimenaren luzapena eskaera, J.A., A.U. ren izenean/ Solicitud de ampliación de licencia de obras de rehabilitación interior del Caserío Arpirene de Larraul, J.A. en nombre de A.U.**
- 4. 2017 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskaintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada/ Aprobación de las Ordenanzas Fiscales y Ordenanzas de Tasas y Precios Públicos por prestación de Servicios Municipales para el ejercicio 2017.**
- 5. “Parke zaharraren” egoeraren gaineko erabakia, hala bada./Acuerdo sobre el estado del “Parke Zaharra”.**
- 6. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 7. Beste batzuk/Otros.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2016 urteko urriaren 13ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

26/2016 Alkatetza Ebazpena, urriaren 27koa, 2016ko 3. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

27/2016 Alkatetza Ebazpena, urriaren 27koa, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2016 ekitaldiko 3. Eta 4. Hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO ARPIRENE BASERRIKO BARNE ERABERRITZE OBRA BAIMENAREN LUZAPENA ESKAERA, J.A., A.U. JAUNAREN IZENEAN

Ikusirik, J.A., A.U. jaunaren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo Arpirene baserriko barne eraberritze obra baimena 2015eko azaroaren 5ean izandako Udalbatzarrean onestu zela.


Ikusirik, Arpirene baserriko barne eraberritze obra ez dagoela bukatuta, horregatik J.A. jaunak aipaturiko obra baimenaren luzapena eskatzen du.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.A., A.U. jaunaren izenean eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Arpirene baserriko barne eraberritzeko obra sei hilabetez luzatzea, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasiko da epea kontatzen.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

2017 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2017. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeo uea dela.

Ikusirik 2016 urteko urriaren 25ean Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimentua, batetik, eta bestetik, 2017ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2017 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldatetak onestea:

1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,23.


Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.

Dauden hobarien artean “Eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak” hobaria, % 25a izango da.

“Famili ugariari” dagokion hobariari buruz 3 ume edo gehiago duten familiei % 50eko hobaria eta “eguzki aprobetxamendu termiko sistemak” izateagatik % 25eko hobaria aplikatuko zaiela mantentzen da.

1.2.Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordain-arazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

Zerga honen koefizientea % 1,69-an mantentzea proposatzen da.

Ibilgailu historikoei % 50eko hobaria aplikatzen jarraitzea onesten da.

Ibilgailu mota eta potentzia	Euroak	Koefizientea
A) Turismoak:		
9 zaldi fiskal bitartekoak	31,08	% 1,69
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak	62,16	% 1,69
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak	103,60	% 1,69
14 - 15,99 zaldi f. bitartekoak	145,03	% 1,69
16 - 19,99 zaldi f. bitartekoak	186,47	% 1,69
20 zaldi fiskaletik gorakoak	227,91	% 1,69
B) Autobusak:		
21 plaza bitartekoak	140,77	% 1,69
21 - 50 plaza bitartekoak	200,50	% 1,69
50 plazatik gorakoak	250,63	% 1,69
C) Kamioiak:		
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	71,45	% 1,69
1.000 - 2.999 kg. bitarteko	140,77	% 1,69
2.999 - 9.999 kg. Bitarteko	200,50	% 1,69
9.999 kg-tik gorako	250,63	% 1,69
D) Traktoreak:		
16 zaldi fiskal bitartekoak	29,86	% 1,69
16 - 25 zaldi f. bitartekoak	46,93	% 1,69
25 zaldi fiskaletik gorakoak	140,77	% 1,69
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:		
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	29,86	% 1,69
1.000 - 2.999 kg. Bitarteko k.e.	46,93	% 1,69
2.999 kg-tik gorako karga e	140,77	% 1,69
F) Gainerako ibilgailuak:		
Ziklomotoreak	7,62	% 1,69
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	7,62	% 1,69
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek	13,05	% 1,69
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek	26,11	% 1,69
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek	52,22	% 1,69
Motozikletak 1.000 cctik gora	104,42	% 1,69

1.4. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Mantendu egiten dira kuotak.

Baserrien berrikuntza	%2,5
Besteak:	
a)60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:	%4,50
b)60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua:	%5,00

HOBARIAK:

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.
- Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.
- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.
- Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.


Karga tasa: % 6,29-an mantentzea proposatzen da.

BIGARRENA.- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

2.1.1. Ur horniketa.

1.Ur horniketa	Euroak/Proposamena
1.1.Ur Kontsumoa	
1.1.1.Etxez-etxeko ur hornidura	
30m ³ .bitartekoa, hiru hilabetea	16,00€
31m ³ tik goragokoa, hiru hilabetea	0,72€/m ³ bakoitza
1.2. Azpiegitura kanona: Guztientzat, hiruhilabeteko	11,00€



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.3.Kontadoreen alokairuen kanona Guztientzat, hiruhilabeteko	9,00€
1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko	120,00€

Hobariak:Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.

2.1.2. Zabor bilketa zerbitzua

ZABORRAK	Euroak/ Proposamena
1.Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko	37€
2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko	52€
3. Etxez-etxeko bilketa, konpostaia egiten ez dutenak, hiruhileko	86€
4. Industria, komertzio eta taberna bilketa, konpostaia egiten ez dutenak,hiruhileko	120€

Hobariak:Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.


2.1.3.Dokumentu administratiboen igorpena:

2016 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

2.1.3.1.Lizentziak, kontzesiok eta hirigintzako baimenak:

60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	30 €
60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	50 €
Segregazio baimenak	80 €
Hirigintza kontsultak	80 €
Lehen erabilera baimena	105 €
Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa	1600 €

2.1.3.2.Iharduera baimenak ematea:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- A.1.Klasifikatutako jarduera..... 110 €
A.2.Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa..... 80 €

2.1.3.3. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren % 200.

Tasa hauek mantentzea proposatzen da.

2.2.HERRIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOZKION TASEN ORDENANTZA FISKALA

2.2.1.Hileta zerbitzuak:

2016 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK

- Hezurtegiaren emakida:
-Behin-betiko emakida, plaka barne.....195,00€
- Nitxoen emakida:
-15 urteko epean, plaka, apala,.....265,00€
-5 urte bitarteko luzapenagatik.....125,00€
- Lurperatze tasa nitxoan..... 48,00 €

Tasa hauek mantentzea proposatzen da.

2.2.2.- Udal jabari publikoa okupatzeagatiko prezio publikoa: % 1,50.

2.3.- KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEA: 3 euro / orduko.


2.4.- BESTE BATZUK:

Mapa handien salmenta.....3 euro/ud.
Mapa txikien salmenta.....1 euro/ud.

Tarifa hauek mantentzea proposatzen da.

HIRUGARRENA.- 2017 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

- 1.- HOBARI ESKAERA: 2017 urteko otsailaren 1etik martxoaren 1arte.
- 2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:
2017 urteko apirilaren 3tik ekainaren 5 arte.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2017 urteko maiatzaren 1tik uztailaren 43arte.
2017 urteko abuztuaren 1tik urriaren 2 arte.
2017 urteko urriaren 30etik abenduaren 29 arte.
2018 urteko otsailaren 1etik apirilaren 3arte.

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

BOSTGARREN PUNTUA

“PARKE ZAHARRAREN” EGOERAREN GAINEKO ERABAKIA, HALA BADA

Alkate-Lehendakari andreak, Udal Aholkulari teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostena irakurtzen du, non ondorengo dioen:

“LARRAULGO ZABALETAKO HAUR JOLASEN EGOERAI BURUZKO TXOSTENA

LARRAULGO UDALAK eskaturik, Zabaleta ondoan dagoen haur parkearen jolasen egoera zein den aztertzen da. Bertan hauek ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Jolasak zaharkituak daude eta beraien egoera txarra da; egurrean ezpal ugari eta ertz ebakitzailak ikusten dira, torloju asko ahul daude eta oxidazioak ikusten dira elementu metalikoetan. Zenbait jokoetan piezak falta direla antzematen da. Jolasen egituren egonkortasuna ez dago segurtatua.


Jolasen inguruan dauden segurtasunezko zoluak ere oso hondatuak daude. Kasu batzuetan ez dira jokoekiko mantendu behar diren segurtasun neurriak gordetzen.

Jolasek ez dute haur parkeei buruzko EN 1176, EN 1177 , EN 147102 eta EN 147103 legeak eskatzen dituzten baldintzak betetzen. Parkea ez dago homologatua.

Aurrekoa ikusirik, Zabaletako kanparen ondoan dauden haur jolasek beharrezkoak diren segurtasun eta osasungarritasun neurriak betetzen ez dituztela informatzen dut.

Dagoen arriskua saihesteko, hauek lehen bait lehen kentzea gomendatzen da.”

Ikusirik hainbat pertsonak sinaturiko idatzi bat aurkeztu diotela Udalbatza honi, ondorengo azalduz:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“Larraulgo udaleko iragarki oholean 2016ko azaroaren 10erako ohiko plenorako deialdia ageri da. Deialdiko 5. Puntuan “Parke zaharraren egoeraren gaineko erabakia, hala bada” aipatzen da.

Jarraian, izenpetzen dugun pertsonok “Parke Zaharraren” inguruan udalak egin nahi duenaren berri jakin nahi genuke, gaiak hainbat kezka sortu baititu.

Horregatik, ondorengoa eskatzen diegu udal ordezkari:

-2016ko azaroaren 10eko ohiko plenoan erabakirik ez hartzea.

-Beharrezko denbora hartzea “parke zaharraren” inguruan egin nahi dena herritarrei azaltzeko eta sortu diren kezkak argitzea.”

Guzti hau kontutan harturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Zabaletako parkean dauden haur jolasak kentzea, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jarritako gomendioa jarraituz.


BIGARRENA: Larraulgo Zabaletako parkean dauden haur jolasak kendu ondoren, parkeari emango zaion erabilera, Udalak zabalduko duen parte-hartze prozesu batean erabakitzea.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri herritarrei ematea bando bidez.

SEIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IBERDROLA	142,16
IBERDROLA	73,02
IBERDROLA	267,92
IBERDROLA	32,40
IBERDROLA	249,26
TELEFONICA	18,60
TELEFONICA	52,08
TELEFONICA	132,86
KEY-LAN	30,25
AITZOL EUSKALTEGIA	2.269,00
UR AGENTZIA	28,56
UR AGENTZIA	3,84



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

UR AGENTZIA	29,88
DIONISIO ORMAZABAL	43,34
TOLOMENDI	152,50
EBA ERKIZIA	788,38
ZU ETA BIOK	719,04
KIROLZER	63,15
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	168,80
OSTARBI	13.329,97
EZEIZA	643,72
SETALDE	496,85
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	950,45
CORREOS	1,00
OSTARBI	1.312,97

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **22.000,00** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMARGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**


10.1.ASTEASUN AZAROAK 19 AIZTONDORA EGUNA 2016 EKIMENARI ATXIKIMENDUA

Ondoren Asteasun, azaroaren 19an egingo den Aiztondora eguna 2016 ekimena aurkezten da.

Udalbatzarra, aho batez, aipaturiko ekimenari atxekimendua emanten dio eta azaroaren 19an arratsaldeko 18.30orduetan egingo den ekimenean Larraulgo Udaleko zinegotzi bat bertan izango dela onesten dute.

10.2.KATILUTXULO ELKARTEKO JUNTAREN ADIERAZPENA

Ondoren Katilutxulo elkarteko juntak adierazpen bat aurkezten dio Udalbatzarrari eta azken honi eskatzen dio, Jai batzorde eta Katilutxulo elkartearen bitartekari izan denez, Udalak, zein jarrera hartuko duen Katilutxulo Elkarteko junta eta Jai



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Batzordearen arteko gatazkaren aurrean eta ze neurri hartuko diren Jai batzordearekiko, jakinda azken honek diru publikoa jasotzen duela.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA